

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita”k eragindako ondasun eta eskubideen aldaketa eta apaitutako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko otsailaren 26an egindako bilkuran, 143/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Aldatzea honako proiektu honek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda: A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 842/2010 Erabakiaren bidez onetsi egin zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura proiektu aldatuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratzeko, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita, eta, halaber, bere horretan utzi zen proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren behin betiko onespina (I. eranskina).

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 9ko 529/2018 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita.

Administrazio honetako errepide zerbitzuak txostena eman zuen 2019ko otsailaren 14an, eragindako ondasun eta eskubideak aldatzeari buruz, eta honako hau adierazi zuen:

“Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 9ko 529/2018 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita.”

Proiektu horren ondorioz, Amurrioko 7 poligonoko 573 partzelaren okupazio beharra nabarmen murriztu zen uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiko I. eranskineko eragindako eskubide eta ondasunen zerrendan aurreikusitakoarekin alderatuta (uztailaren 9ko 345/2013 Erabakia, behin betiko onetsi zuena A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita).

Horregatik, jakinarazten da okupatu beharreko behin betiko azalera murriztu egin dela eta 1.214 m² izan ordez, 945 m² dela. Aldi batean okupatu beharreko azalera eta zortasunak arinki aldatu dira, honako taula honen arabera eta erantsitako planoan ikus daitekeen moduan:

FINKA ZK.	JABEAREN IZENA	KATASTRO ERREF.		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA (M ²)		
		POL.	PARTZELA				BEHIN BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA
42	QUINTANA SALAZAR, Daniel Pantaleón	7	573	AMURRIO	EKOIZTEKO EZ DENA	APARKALEKUA	945	479	Hornikuntza/3m 103 Saneamendua/3m 103 Lurrazpiko elektrikoa/3m 105 Lurrazpiko telefonokoa/3m 70

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, honako bi hauek ezartzen dutenaren arabera: Autonomia Erkidegoko Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. eta 8. artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 8. artikulua.

Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu nahitaezko desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan. Horregatik, finka horrek aipatutako proiektuaren eraginak jasaten dituztenez, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda aldatu egin behar da.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hemen

ERABAKIA

Bakarra. Aldatzea proiektuak (A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita) eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeinean 42/000 desjabetze espedientean aipatutako finka horrela gertatu baiten:”

FINKA ZK.	JABEAREN IZENA	KATASTRO ERREF.		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA (M ²)		
		POL.	PARTZELA				BEHIN BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA
42	QUINTANA SALAZAR, Daniel Pantaleón	7	573	AMURRIO	EKOIZTEKO EZ DENA	APARKALEKUA	945	479	Hornikuntza/3m 103 Saneamendua/3m 103 Lurrazpiko elektrikoa/3m 105 Lurrazpiko telefonokoa/3m 70

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxetako lokaletan ager daitezten, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Egintza horretara, interesdunak berak azaldu beharko dira, edo haien izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsonaren bat, haien ordezkari moduan, eta aldean eraman beharko dituzte titulartasuna egiaztatzen duten agiriak (eskritura publikoak zein pribatuak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak, bankuko kontuaren zenbakia eta abar). Gainera, egokia baderitzote, peritu, abokatu edo notario batek lagunduta agertu ahal izango dira, horren gastuak beren gain hartuta.

Halaber, eta Nahitaezko desjabetze Arautegiaren 56.2 artikuluan xedaturikoarekin bat etorritik, interesdunek zein ondoren datorren zerrendan agertzen ez diren eskubide errealen nahiz interes ekonomikoen titularrek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote idatziz Arabako Foru Aldundiari (Probintzia plaza 4, 6. solairua 01001, Vitoria-Gasteiz) okupazioaren aurreko aktak egiteko adierazi den egunera arte, baldin eta eragindako ondasunak eta eskubideak zerrendatzean okerrik egin eta horiek zuzentzeko bada.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 27a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARIA ANGELES GUTIERREZ ONDARZA

FRANSKIN I / ANEXO I
ESP./EX.PTE. 06/217
 A-625 ERREBIDEA 357,30 KILOMETROTIK 354,22 KILOMETROA (BIZKAIA MUGA) EGOKITZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA, ZENA A-625 ERREBIDEA 359,65 KILOMETROTIK (AMURRIOKO EKIALDEKO SANHESBIDEAREN HASIERA) 354,22 KILOMETROA EGOKITZEKO TRAZAJERA ALDATUAREN ERAKUNTZA PROIEKTUAREN PROIEKTU / XAHATUA BAITA.
 PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 357,30 Y EL P.K. 354,22 (LÍMITE DE PROVINCIA CON BIZKAIA) DE SLOASADO DEL DE CONSTRUCCIÓN MODIFICADO DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 359,65 (INICIO DE LA VARIANTE ESTE DE AMURRIO) Y EL P.K. 354,22.

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO AZALERA M ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURSALA					ERAKUNTZA	SUPERFIZE AFEKTADUA		
Nº FINKA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BEN AFEKTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE		
42	QUINTANA SALAZAR, Daniel Pantaleón	7	573	AMURRIO	EZ EMANKORRA IMPRODUCTIVO	BEN AFEKTADO	945	479	Humidura ubidea/3m Acueducto abast./3m Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m Elektrikoa ubidea/3m Eléctrica subterranea/3m Lurpeko linea telefoniko/3m Telefonari subterranea/3m 70	26/03/19	10:00